



4. Intza eta Tomas. Laminaren iturria



B1

1. KAPITULUA *Urik ez betiko iturrian...*

4.1. Lehen kapituluak irakurri ondoren galderei erantzun diezazue.

1. Aurkez itzazu kapitulu horretan agertzen diren pertsonaiak.
.....
2. Nor da kapitulu horretako narratzailea?
.....
3. Kapitulu horretan bi gertakari bitxi aipatzen dituzte. Zein dira?
.....
4. Tomasek erraten du :“Ez da giro, momentuan, familian”. Zer erran nahi du?
.....



A2

2. KAPITULUA *Laminei buruzko jakin-mina*

4.2. Irakur ezazu kapitulu horren laburpena. Ondotik azpimarra itzazu informazio okerrak eta zuzen itzazu.

Tomasek hiru anaia ditu eta, nahiz eta ez duen erakusten, haienganako arrangura du. Intza berriz ere iturri zaharrera joan da; etxera itzultzean aitatxirekin hitz egin du eta zergatik Laminaren iturria izena duen galdetu dio. Aitatxik kontatu dio laminak erromatar mitologiako pertsonaiak direla, jende itxura baina txantxangorri oinak dituztenak. Aldi berean, batzuetan gisakoak eta batzuetan gaiztoak izaten direla dio. Batzuetan laminek eta jendeak elkar laguntzen dute lanetan, janariaren truke. Dirudienez, lamina baten etxetik ateratzean, jendeak ez du aitzinera begiratu behar. Bestela, eman dizkioten opariak bikoizten dira.

Esnatu aitzin berriz iturrira joan da Intza. Han emazte alemana ikusi du eta azken horrek erran dio zerbait ongi dabilela, arrainak dantzan direlako. Emazte horren arabera naturaren oreka hautsi da, eta horren konpontzeko, jariora berriz ezarri behar da.